

ISIDOR ETXEBERRIA ADISKIDEARI

AGUR ADISKIDE:

Beste lankide bat joan jaku, Isidor Etxeberria adiskidea.

Aspaldion bere idaz-lanak ugari agertu dira gure ZER onetan, baiña bere zeregiña mundu onetan amaitu ondoren, Aitarenera joan da.

Bilbo'ko Salbatzaillaren parrokian izan zan bere illetea eta, tamalez, ez genduan izan joaterik.

Izan dagiala betiko zoriona!

IRAKASLE DEITUA

Txikitatik izan eban Isidor'ek irakaskintzarako deia eta orretarako dan erlejiño-alkarte batera emon eban bere izena.

Gero alkarte on itzi ondoren, erririk erri eta egoera larrietan izan eban bere maisu-lana egin-bearra. Beti ikasleen maitale, beti gazteak bide onetik aurrera atera naian, beti bere deiari erantzuten.

EUSKALZALE JAIOA

Jaiotzatik izan zala euskal-zale esan geinke, baiña urte garratzetan ezin izan eban bere jokera on agertu.

Orregaitik, aspaldiko urteetan, lana egiteko ere izan dauanean, EUSKERAZALEAK alkartean emon eban bere izena eta, Bilbo'tarrai batez be, euskerea irakasten ekin eban.

ERRI-GIZONA

Bere erritik urrin ibilli-bearra izan arren, irakasletza izan be erritik kanpoan ibilteko lana izaten da sarritan, berak bere erria izan eban maite. Erri-zaletasun orren agiri ederrak emon dauz batez be azkenengo urte oneitan: Bere erritik urtendako abade ta lekaideen batzarrak eratuz, bere sendiko senide guztien batzarrak egiñez, bere senideak ikustera sarritan joanez, eta abar.

ERRIAREN AURRERAPENA

Isidor'ek erriaren aurrerapena, batez be gazte-diaren aurrerapena, billatu eban beti. Bere ikasleen artean lenengo ta bein, baifia ez gitxiago Leniz Ibar aretan, bere jaiotzaren giroa agertzen eban tokian, gizon gogoangarri batek, Jose Maria Arizmendi-Arrieta abadeak, egin eban lana goratuz. Ori izan da bere aspaldiko idaz-lañetako gaia.

JARRAITU DAIGUN

Lankide au joakeran, lendik izan dogun ardura bat sartzen jaku sakonago: Gure ZER onetako idazleen uffitasuna.

Egia da aspaldiko egunetan idazle barri batzuk urreratu jakuzala, baiña arazo au arduragarria izango jakula uste dogu.

Bizkaiera maite daben gure gazteak, eta elduak be bai, jesarri beitez idazkiñaren aurrean eta asi beitez idazten, orrelan bakoitxaren jakintza zabal-tzeko eta Bizkai'ko gure euskalki makaldu oneri indar barria emoteko.

Isidor'ek itzi dauan utsunea nok bete izan daite-la.

BERARI ENTZUNA

Abendu onetako lenengo egunetan, bere irakasltaldi baten berba oneik esan ebazan Isidor'ek: "Gure bizia ari batetik dingilizka dago, Jaunaren mendean gagoz". Bere buruari igarten eutson, antza. Orain aria eten egin da eta emen itzi gaitu samintasunez eta itxaropenez.